

MENDATAKO ELIZA

Muxikako Jose Etxebarrik kontatuta 1924an

Mendatan lehenago eliza egiten Madarian¹ hasi ei ziren seguruenez.

Baina Madarian egunez egiten zituzten behar guztiak, gauez gazte galant batek (prakaz jantzita zebilena) orain elizaldea dagoen lekura eramaten ei zituen idibusterri batekin.

Idi bate izena “txuri” zen eta bestearena “belio” (horia).

Eta baten, Seleta baserriaren ondotik zihoazela, Seletan atso bat ei zegoen ate-zulotik begira.

Gazte horrek (San Migel ei zen) esan ei zuen:

Aida txuri eta belio,

Horko ate-zuloan

Begira dagoenari

Begia atera beio.

Ordutik aurrera beti ei du Seletan itsu edo begiokerren bat, atso horretatik hasita.

Oraintxe ere han ei daude Seleta ondoan idi horien zuloak.

Gero hortxe dagoen lekuen egin ei zuten eliza hori.

(1) Madaria, Mendatan dago.



Mendatako Mikel Deuna eliza

Joxe Miel Barandiaran
Obras Completas Tomo II
Eusko-Folklore
Editorial La Gran Enciclopedia Vasca
Bilbao, 1973